

Udaleko sototik

Premiazko errotonda

Juan Carlos Lopez

hiri honetan hainbat proiektu egiteke dago oraindik, oso premiazko proiektuak gainera. Orain Errotaburuko errotonda aurrera eraman beharko lukenean aurkeztu dute. Beraz, "Ikusi beharko" besterik ezin dugu esan.

Zenbait urtez zain egon ondoren, Udalak balmena eman die Diputazioak aipatutako errotonda egin aurretik egin beharreko aldaketel. Ez da beharrezkoa gogoratzea, lan honen zain ginela,

Ibaeta-Amara errepidea egin bai baina hainbeste milioi balio izan zituen azpiegitura hori hankamotz dagoela oraindik ere.

Egitasmo honek hainbat gabeziari aurre egingo die eta horregatik, ikusmin handia sortu du. Errotondak autopistaren irteera-buklea kentzea ahalbidetuko du Zapatarin, eta baita leku honetantxe etxebizitzak egitea ere. Horrez gain, Tolosa Hiribidean autoentzako karril gehiago jartzeko aukera egongo da, trafikoaren aurka



Laster hasiko dira Errotaburu errotonda eraikitze lanak

Argazkia: Inés Oleg

egunero borrokatu beharrean izaten diren langileen eta unibertsitarien gozamenerako. Errotondari esker, ingurune honek hobera egingo du. Izan ere, azken urteak lokatz eta buztin artean eta tailer eta gasolindegiz inguratuta pasatu baititu. Azkenik, logika handiagoaz antolatuko da hirira sartzeko trafikoa, gaur egungo zurrumbilotik ihesi.

Gezurri dirudien arren, errotonda hau arazo askoren konponbideen giltzarria da. Horregatik, harrizkeoa da benetan nola ibili diren hain berandu erakundeak proiektua abian jartzen, denok haren premia oso garbi ikusten genuenean. Nahi duenak paparrean domina jar dezala, kartoizkoa besterik ez bada. Txantxa dirudi, baina errotonda errealitate bihurtzeko bidean da.

● SOTOTIK TXULORA

■ Auditz Akular

Azken urte honetan Udalak 1.500 milioi bideratu ditu Auditz Akularreko lursailak erosteko, Altzan. Laster batean udal arduradunek etxebizitza publikoen sustapen garrantzitsu bat iragarriko dute. Sustapenak Plan Orokorra aurreikusitako kopurua, 800 etxebizitza, gaudituko du. Datozen urteetako operazioak handiena izango da.

■ Artikutzan sutan

Artikutzako arduradunek legez kanpoko suteak ugaritu direla jakinarazi diote Donostiako Udalarari. Izan ere, azken hilabeteotan hiru hektarea kiskali dituzte suteek. Suteak azienda jabeen erantzunkizuna izan daitezkeen arren, ziur asko Udalak inguru honetan kontrol zorrotzagoa egin dezaten eskatuko die Nafarroako agintariei.



Marino Tabuyo, 6
Tfnoa.: (943) 32 15 94
DONOSTIA

Laskorain, 7
Tfnoa.: (943) 65 49 16
Faxa: (943) 65 17 27
TOLOSA

El Andorrano

1860tik zurekin

Alkandorak • Lentzeria

Garibai, 11 • DONOSTIA - Tfnoa.: (943) 420607